



HEZKUNTZAKO HEZITZAILE ZEIN DOZENTE LABORALEN SOLDATA MURRIZKETEN AURKA

Madrilgo Gobernuaren agindua betez Lakuak lan sarien murrizketa gauzatu du. Ondo dakizuenez, uztaileko nominatetik aurrera murrizketak pairatu ditugu bakoitzari dagokion kategoria eta antzintasunaren arabera.

Neurri honek agerian uzten du Madril eta Gasteizko gobernuen jarrera, krisiaren kostea langileen lepotik kobratuz, eta gainera, negoziazio kolektiboaren aurkako eraso zuzena suposatzen du. 2009ko abenduaren Mahai Orokorreko Akordioa bertan behera geratu da (%0,3ko igoera 2010ean) eta gure ordainsariak orain dela bi urtekoekin parekatu dituzte.

	URTEKO KENKETA(eurotan)						
	0. hiru	1. hiru	2. hiru	3. hiru	4. hiru	6. hiru	8. hiru
Hezitzaileak *Transkriptoreak Interpreteak	-264,42 % -1,00	-271,32 % -1,009	-278,22 % -1,018	-285,12 % -1,027	-292,02 % -1,036	-305,82 % -1,052	-319,62 % -1,067
Fisioterapeuta Lanerako terapeuta Gizarte langilea	-484,84 % -1,6	-503,59 % -1,62	-522,34 % -1,65	-541,09 % -1,68	-559,84 % -1,71	-597,34 % -1,76	-634,84 % -1,81
Maisu/maistra Logopeda (erdi gradua)	-595,06 % -1,80	-613,49 % -1,82	631,92 % -1,84	-650,35 % -1,86	-668,78 % -1,88	-705,64 % -1,92	-742,50 % -1,96
LHko irakasle tekniko Arte plastiko eta diseinu- ailerreko maisu-maistra	-913,33 % -2,39	-931,76 % -2,4	-950,19 % -2,41%	-968,62 % -2,42	-987,05 % -2,43	-1.023,91 % -2,45	-1.060,77 % -2,47
Bigarren irakaskuntzako rakasleak Musika eta arte eszenikoko rakasleak	-919,72 % -2,39	-954,39 % -2,43	-989,06 % -2,48	-1.023,73 % -2,52	-1.058,4 % -2,56	-1.127,74 % -2,63	-1.197,08 % -2,7

Gaia luze eta sakon aztertu ondoren, STEE-EILAS sindikatuak Hezkuntzako Lan Legepeko Langile Hezitzaile zein Irakasleen sektorean Gatazka Kolektiboa eta banakako erreklamazioak aurkeztea erabaki du.

Gatazka Kolektiboaren bidez sektorean aplikatutako soldata murrizketak bertan behera gelditzea eskatzen dugu, Lan Hitzarmenaren urraketa suposatzen duelako. Salaketa honek, diru-erreklamazio guztien legezko prozedura geldiaraziko du, eta irabaziko balitz, erreklamazio guztiak batera eta automatikoki irabaztea ekarriko luke. Gatazka galduko balitz ordea, erreklamazio guztiak galdutzat emango lirarteke.



Banakako erreklamazioa

Enpresak duen ordainketa konpromisoa betetzeko eskaera da. Garrantzitsua da zor dizkizun kopuruak enpresari erreklamatzeko. Dagokizun erreklamazioa aurkeztean ez baduzu, sektorean aurkeztean den gatazka kolektiboaren ebazpena sindikatuaren aldekoa izanik ere, enpresaren borondatearen menpe geratuko zinateke dirua eskuratzeko garaian. Dena den, legezko edozein prozesutan bezala, galtzeko arriskua dago.

Urtarrilean aurkeztuko dugu erreklamazioen lehen txanda, beraz aurkeztu beharreko dokumentazioa emateko epea abenduaren 23 arte izango da.

Dena den neurri hau bertan behera geratzea lortzen dugun bitartean, murrizketak jarraituko dutenez erreklamazioa beranduago egiteko aukera zabalik egongo da, datozen hilabeteetan.

Beharrezkoak diren datuak aurkeztu ostean eta zerbitzu juridikoen esku jarri ondoren, ez duzu zure burua zertan aurkeztu behar prozesuan. Banakako erreklamazioak, adiskidetze egintza gauzatu ondoren, auzi-eskaera bilakatzen direnez, zure interesak babesteko dituen abokatu batek bideratu behar ditu. STEE-EILASen zerbitzu juridikoak erabiltzeko aukera eskaintzen dizugu.

STEE-EILASekin erreklamazioa egiteko honako hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Ekainetik aurrerako nominen fotokopiak
- b) Sindikatuko web orriaren LABORALEN atalean dauden inprimakiak bete:

* *Informazio pertsonala*

**STEE-EILASeko zerbitzu juridikoak erabiltzeko protokoloa*, zeinek erreklamazioaren sinadura izango duen eta zerbitzu juridikoei bere izenean jarduteko boterea emango dien. Azken honek bi eredu ditu: bata afiliatu direnentzat eta bestea, afiliatuak ez direnentzat.

STEE-EILASen eskutik erreklamazioa bideratzen duen pertsona bertako afiliatua izanez gero, sindikatuak eskainitako zerbitzu juridikoak doakoak dira. Afiliatuak ez direnentzat eta STEE-EILASen bidez erreklamazioa burutu nahi dutenen pertsonentzat, zerbitzuaren kostua 45 €koa izango da eta irabazitakoaren %10aren ordainketa konpromisoa adierazten duen kontratu bat sinatuko da.

DEFENDA DITZAGUN GURE ESKUBIDE LABORALAK!

ARABA
Eulogio Sardán, 5 (behea)
Tf: 945 14 11 04 Faxe: 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org

BIZKAIA
Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)
Tf: 944 10 02 98 Faxe: 7944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA
Baso-biki, 30-34 (atzealdea)
Tf: 943 46 60 00 Faxe: 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA
Descalzos, 72 (behea)
Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org

EHU-UPV Araba 945013397
stee-eilas.ara@ehu.es

EHU-UPV Bizkaia 946012435
stee-eilas.biz@ehu.es

EHU-UPV Gipuzkoa 943018436
stee-eilas.gip@ehu.es